

Username

Password

Hasi saioa Remember Me

[Erabiltzailea/Pasahitza gogoratu](#)



Larunbata, 2014-04-05

gipuzkoako hitza

- [Albistek](#)
- [Agenda](#)
- 
- [Gaiak](#)
- [Astekoa](#)
- [Iritzia](#)
- [Irudia](#)
- [Kontu kontari](#)

Arraunean edo oinez, Urumean

2014(e)ko Apirilak 4

Sailkatugabeak

Nork Gipuzkoa.gipuzkoa.hitza.info.

Era natural batean, motorrik gabe, Urumea ibaia barrutik ezagutzeko aukera jarri dute Haritzalde Naturzaleen Elkarteak eta *Arrauning.com* enpresak. Urumean traineruan, kayakean edota oinez egiteko bisita gidatuak antolatu dituzte, Donostiako Loiolako Erriberatik hasi eta Martuteneko 27 poligonoko zubia bitartean.

Ibaia eta ibaiertza barrutik, uretatik bertatik, desberdin ikusten da. Irteerako gunean bertan, ibaiaren bi ertzak nabarmen desberdinak direla antzematen da. "Alde batera, Kristinaenea parkea dugu, ertz naturala. Bestaldera, berriz, uharridi bat dugu, harresi bertikala. Tarte motz batean, gizakiaren jarduteko bi modu desberdin ditugu agerian", azaldu du ontzi gainerik Xabi Rubiok, Haritzaldeko kide eta biologoak.

Urumeako bisita gidatuan parte hartzen duenak ariketa fisikoa egin beharko du, arraunean egin edo oinez ibili beharko baitu. "Kirol esperientzia polit bat izateaz gainera, ibaia bizi eta gozatzeko aukera dago". Ariketa fisikoa, ordea, edozeinek egiteko modukoa dela dio *Arrauning.com*-eko Unai Elizasuk: "Denak elkarrekin eta batera egingo dugu bisita. Loiolako Erriberatik [*Arrauning.com*-en egoitzatik] irten eta taldeak ahal duen tokiraino joango gara. Atsedenaldirik egingo ditugu bidean, eta orduan ikusten dugun hori azalduko dugu". Arraunean ordu eta erdi inguruko bisita egiteko aukera dago, eta ibaiertzetik, oinez, bi ordu edo bi ordu eta erdi ingurukoa.

Ibaia bizia da, eta bizia du. "Baina, askotan, ahaztu egiten zaigu zer den ibaia", dio gidariak. Horren adibide, aurreko hilabeteetako itsasaldian olatuak Martuteneraino iritsi izana. "Orain arte inoiz ez zen iritsi olatua Martuteneraino. Baina gizakiak ibaiertzean egin dituen kanalizazio horrek eragin du hori. Ibaiko landaretzan eta faunan eragin du, baina gizakioi ere eragiten digu".

Azalpen horrekin batera, bisitako gidariak Loiolako Erriberako pasealekura zuzendu du begirada. "Ibaiertzeko paseoa oso polita da, baina atzerago egin zitekeen, erriberako landaretzan errespetatuz eta auzoa beste era batera antolatuz". Horri lotuta, orain bi aste Loiolako Erriberako auzotarrekin 155 zuhaitz landare landatu zituztela gogorarazi du: altzak, zumarrak, astigarrak, haritzak eta lizarrak sartu dituzte. Landare txikiak dira oraindik, baina ikusten dira.

Ibaiaren ertz batean txori kantua entzuten da; aldiz, bestaldean, isiltasuna edo goiko errepideko zirkulazioaren zarata. "Ibaira, uretara jaitsita ibaiaren ikuspegia asko aldatzen da, eta txori kantuek entzunda jende asko harritu egiten da".

Ibaiaren garrantzia

Bisita gidatuen bidez Urumea gertutik ezagutzeko aukera eskaini nahi dute, baina, era berean, jendea ibaiak duen garrantziaz sentsibilizatzea dute helburu. "Urumearen zati hau itsasadar bat da, eta landaretzan eta faunan eragina du". Tamarindoak ikus daitezke ibaiertzean; "baina ez dira Kontxako pasealekuan dauden espezie berekoak. Naturalak dira hauek". Loiolatik ibaian gora, ordea, landaretzan aldatzen joaten dela dio, eta marearen eragina, berriz, Hernaniraino iristen dela.

Gainera, itsasadarrek araztegi funtzioa betetzen dute: "Garrantzia dute; guneko aberatsak dira, batik bat ondo zainduta daudenak. Algak eta mikroorganismoak gehitzen dira guneko hauetan, baita arrain espezie askotako kimuak ere. Horrek gero hegaztiak erakartzen ditu". Ubarroi bat ikus daiteke Kristinaenea parke aldeko ibaiertzean zuhaitz baten adarrean; hegan alde egin du.

Urumea oso aberatsa da, eta ibaiari oraindik aukera bat emateko modua dagoela diote bisita gidatuak antolatu dituztenek. "Ibaiaren ondoan bizi behar dugu, ibaia aurrean dugula eta ibaia biziz". Aukeran jarri dituzten Urumeako oinezko edota arrauneko bisita gidatuetakoren batean parte hartuz, ibai baten inguruko informazio asko jaso daiteke, bertatik bertara ikusiz eta biziz: itsasadarra zer den, mareak nola eragiten duen, bizi diren espezieak, auzoak, baserriak eta ingurunean historian gizakiak izandako eragina eta egindako hirigintza jarduerak.

San Telmo museoan ikusgai dagoen *Ura, ibaiak eta herriak* erakusketarekin lotuta dago jarduera, hainbat elkarte eta erakundek antolatu duten agendaren barruan.

Profile

[Sign in with Twitter](#) [Sign in with Facebook](#)

or

Name

Email Not published

Website



CAPTCHA Code *